

KONTROL MOZIOA

Mugikortasun Bertikaleko Gida Plana dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko apirilaren 20ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako 2024-2029 Hiri Mugikortasunek Jasangarriko Planaren ekintza-plana aztertzen badugu, 1.7 ekintzak, honakoa dio: Mugikortasun Bertikaleko Gida Plana berrikusi eta onartzea.

Indarrean dagoen Mugikortasun Bertikaleko Gida Plana 2017onartu zen.

2024-2029 Hiri Mugikortasunek Jasangarriko Planean bertan irakurri dezakegu, Mugikortasun Bertikaleko Gida Plana berrikusteko beharra dagoela eta gainera, berrikustearekin batera, auzoetako herritarrei irekitako partaidetza-prozesu bat egingo dela.

Ekintza-planak epea eta aurrekontua zehazten ditu, eta hain zuzen ere, Mugikortasun Bertikaleko Gida Plana berrikusi eta onartzeak, 2024 urtean zuen epea eta 30.000 euroko aurrekontua du.

2024ean berrikuspenik egin ez zela ikusiri, horri buruz galdetu genuen 2025eko urtarrilean eta Udal Gobernuaren hitzetan, 2025ean zehar egingo zen lan hau.

2026ean egonik eta planaren berrikuspenik ez denik egin, horri buruz galdetu dugu apirileko batzordeetan eta zinegotzi arduradunaren esanetan plan berriaren hastapenetan daudela jakin ahal izan dugu.

2017ko Mugikortasun Bertikaleko Gida Planaren berrikuspenarekin hasiak direla onartu digu Udal Gobernuak eta oraingo planaren aurrerapen maila aztertua izan dela ere.

Baita ere, plan berrian genero ikuspegia txertatzeko asmoa dutela eta lan hori egingo duen enpresa batekin harremanetan ari direla jada.

Azken Mugikortasun Bertikaleko Gida Plana 2017koa da, ia 10 urte egingo dituen plana. Eta hori berrikusteko lana egingo dela, aspaldi ari da Udal Gobernuak esaten. Ez dezagun ahaztu, jada 2023-2027 Gobernu Programan ere Mugikortasun Bertikaleko Gida Plana berrikusi eta eguneratuko zela adierazi zuela Udal Gobernuak.

Auzo askok eta bertako bizilagunek irisgarritasun-arazoak dituzte eta badakigu eremu batzuetan mugikortasun bertikalak soluzio bat behar duela berandu baino lehen. Hortaz, arrazoiak arrazoi edo aitzakiak aitzaki, berrikuspen lana asko atzeratu dela argi geratu da eta lehentasunez hartzeko gaia eta momentua dela iruditzen zaigu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udaltzako hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, atzerapen gehiagorik gabe, Mugikortasun Bertikaleko Gida plan berria egin dezan 2026ko abenduaren 31rako.

Donostian, 2026ko apirilaren 24ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia